

Berrigara

~~BERGARAREN~~^{ko} EUSKALTEGIAK

ikasle batzuk ~~egiten~~^e ~~dute~~^{dituzte}
ikastarok ~~lortzean~~ eta

beste batzuk ~~gatoz~~ euskalte-

gira ~~gatoz~~
lortzen gara.


NISSAN ALMERA TINO BERRIAK SUTAN JARRIKO ZAITU



2.665.000
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com





Errotarriari biraka

MILA ELORTZA

Mende berri honek errotarriari birak ematen harrapatu gaitu. Mundu zabale-
ra gure aldarrikapena zabaltzen. «Bizi-
rik gaudela eta horrela nahi dugula jar-
rraitu». Baina beti ere festa giroa lagun
dugularik. Urtean zehar, bertso afaria,
erakusketa, eskola txikien festa, AH-
Tren aurkako Bergara-Angiozar ibilal-
dia... Eta iritsi da iraila eta kurso berria
guztiontzat.

Orain arteko ekintzek erakutsi digute
elkarrekin lan egiteak giro hobea sor-
tzen duela gure artean, eta behar hori
daukagu aurrerantz jarraitzeko. Gure
premia eta arazoak ezagunak izango
diren arren guztiontzat, hemen doaz la-
rrienerakoak:

1. Etxebizitzak: hogeita bost urtetan
laurehun biztanle gutxiago gara.

2. Pistak: Goimenditik eta Zabaleta-
menditik ez dugu lotura zuzenik An-
giozarko kalearekin, beraz hiru kilo-
metro eta erdiren ordez,
hamar kilometro egin
behar ditugu.

Guretzat ezagunagoak
dira erantzunak orain-
dino: oztopo ugari baz-
terretan eta Abiadura
Handiko Trenaren pare-
ko proiektu megaloma-
noak inguruan, baina
betiko legez eztabaida-
tzeko aukera txikienik

ere eman gabe herritarrei. Bertan erabi-
liko dituzte diru guztiak, eta eskualde-
tan inolako inbertsiorik jasotzeko auke-
rarik gabe utziko gaituzte.

Baina irailak San Migelak ere badakar-
tza, mende berri honek
errotarria martxan jarri
eta jarraitzeko behar
duen ura hartzeko, au-
rrean daukagu paradarik
onena, festa giroan de-
nok elkarrekin ondo pa-
satzeko eta aurrera jar-
raitzeko umorerik ez
dadila falta.

Aupa Angiozar eta ondo
pasatu jaiak.<

«Goimenditik eta
Zabaletamenditik ez
dugu lotura zuzenik
Angiozarko
kalearekin, beraz
hiru kilometro eta
erdiren ordez,
hamar kilometro
egin behar ditugu»



VIRGINIA IMAZ
Clowna

«Umeak berehala
identifikatzen dira
nire pertsonaiarekin,
antzezlaneko *Banbulo*
txakurrarekin» **6.**



AINZANE ARENAZA
Pascual telefonía dendakua

«Loterixan 200 millioi
irabazi ezkerro, etxia
erosi eta ingurukuekin
Australiara biaje bat
egingo neuke» **17.**



'PITI' UNAMUNO
BKEko presidente ohia

«Zuzendaritzako
beteranoekin
diferentziak izan
ditudalako aurkeztu
dut dimisioa» **21.**

hi, gazte!



BEKAK

Juan San Martin beka 2001. Eibarko Udala. Arloak: antropologia eta filologia. Epea: urriak 23.

IKASTAROAK

Anorexia eta bulimia. Consulting Dováll. Urrutiko ikastaroa. Diziplina arteko arreta eta prebentzioa. Epea: urriak 15.
Prestakuntza jarraitua. UNED. Prestakuntza hainbat mailatan. Arloak: zientziak, hezkuntza, filosofia, psikologia, ingeniariaritz... Epe desberdinak.

LEHIAKETAK

XXI. Argazki Lehiaketa. Arrasateko Udala. Gaia: Gazteen ekimenak. Epea: urriak 11.
Batxilergoko aparteko sariak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Epea: irailak 28.

JARDUERAK

Elektronikaldia 2001. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostiako Musika Elektronikoko III. Jaialdia. Epea: urriak 7.

LANA

Hirigintzako teknikaria. Mutrikuko Udala. Zuzenbideko diplomatura eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriak 1.
Liburutegiko erdi mailako teknikaria. Azpeitiko Udala. Hiru urtarako kontratua. Epea: urriak 4.
Administrari-kontularia. Olaberriako Udala. Epea: urriak 1.
Administrazio Orokerreko teknikaria. Tolosako Udala. Zuzenbidean, zientzia politikoetan nahiz ekonomia zientzietan edo enpresa zientzietan lizentziaduna. 4. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriak 1.

Bi udaltzain. Amorebieta-Etxanoko Udala. Epea: urriak 3.

Administrari laguntzailea. Amorebieta-Etxanoko Udala. Epea: urriak 3.
Bi familia langile. Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreita Herrietako Gizarte zerbitzuak. Mankomunitatea. Epea: urriak 5.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunerara.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko gizenueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elempuru



Lekaixua

Irrintzia (pertsonearena bakarrik). *Lekaixua eññ, lekaixua bota.*
– Lekaixoka jatxi giñan San Marzialdik.
– Aber zeññiek itten daben lekaixo luziaua.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 20, eguena	28 °C	7 °C	– 1/m ²
Irailak 21, egubakoitza	28 °C	13 °C	14,3 1/m ²
Irailak 22, zapatua	22 °C	16 °C	1,4 1/m ²
Irailak 23, domeka	20 °C	14 °C	6,9 1/m ²
Irailak 24, astelehena	20 °C	13 °C	– 1/m ²
Irailak 25, martitzena	20 °C	12 °C	– 1/m ²
Irailak 26, eguaztana	27 °C	8 °C	– 1/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Uzarraga

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 28:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
ZAPATUA 29:
GUALLAR. San Antonio 5. ... 943 76 11 05
DOMEKA 30:
GUALLAR. San Antonio 5. ... 943 76 11 05
ASTELEHENA 1:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
MARTITZENA 2:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUAZTENA 3:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUENA 4:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

OGIA

DOMEKA 30. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. ... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa ... 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06
GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuen Etxea. Bergara. ... 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuen elk. ... 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **1933an jaiotakoan bazkaria** urriaren 28an Torrekua erretegian. Aurretik, 13:00etan, Santa Marinen meza izango da. Izena ematea (1.000 pezetako depositoa) Intxorta tabernan edo Torrekua erretegian.

■ **San Joxepe** erretiratuen elkarteak urriaren 10ean Pagoetara, Aiara eta Tolosara joateko irteera antolatu du. Irteera goizeko 9etan egingo da. Izena ematea (2.000 pezeta) eta argibideak: 943 76 21 40.

■ **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** urria eta ekaina bitartean, astero lau orduz. Matrikulak, hileko, 5.500 pezeta balio du. Izena ematea eta argibideak 943 20 65 01 edo 943 76 19 17 telefonoetan (20:30-22:00).

■ **Beart** elkarteak margo ikastaroa (olioa eta akrilikoa) antolatu du. Rikardo Azkargorta izango da irakaslea. Izena ematea 656 72 44 49 zenbakian.

■ **EHE, AEK eta Jardun** 'Euskaldunok izan bagara. Aitortu gabeko hizkuntza eskubideak ditugu' lelopean, manifestazioa zapatuan, hilak 29, San Martin plazatik aterata, 12:30ean.

■ **Bedelkarreko ekintzak:** urriaren 19an Musika Eskolako

trikitalariak, urriaren 26an Musika Eskolako Banda Gaztea eta azaroaren 2an Jarduneko trikitalariak. Arratsaldeko 18:30etik 20:30era kaleak alaituko dituzte.

jardunen agenda



■ **Jolasleku ibiltaria:** Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako jolasak. Irailaren 28an Udal pilotalekuan eta urriaren 5ean Espoioan.

■ **Trikiti eskola: panderoa eta soinua:** Urriaren 1etik ekainaren 22ra. Kartzela zaharrean. Panderoa, 1.900 pezeta (hileko kuota) eta soinua 2.650 pta. (hileko kuota).

■ **Eskulanak:** Urriaren 1etik maiatzaren 27ra Kartzela zaharrean. Urteko kuota: 5.000 pezeta (6.000 bazkide ez direnek).

■ **Hezkuntza nutrizionalari buruzko ikastaroa:** Urriaren 15, 18, 22 eta 25. Kartzela zaharrean. Urteko kuota: 2.000 pezeta (2.500 bazkide ez direnek).

zorionak!



Unai Azula
28an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Aginagalde
30ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mikel.



Maitane Muruamendiaraz
30ean 4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Julen.



Endika Cabo
1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta auzo-lagunak.



Marina Retolaza
3an 9 urte.
Urte askotarako!
Imanol.



Leire Yera
4an 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Ion.



Ane Txintxurreta
2an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jone Santamaria
3an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mireia Osuna
30ean urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak eta aitona-amonak.



Manex Moreno
29an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Pardina
2an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Guisado
1ean 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta David.



Mireia Iturrospe
29an 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

Hurrengo alean,
urriaren 5etik 10era
bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

- Pintura-lanak orokorrean
- Pintura industrial
- Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Jaiotzez donostiarra den arren, Bergaran urte asko eman ditu Virginia Imazek. Gainera, *clowna* izanik, askok ezagutzen dugu, herrian hainbat ikuskizun eskaini ditu eta. Orain, Txalo Produkzioak konpainiarekin, Atxagaren *Banbulo* ipuinean oinarritutako antzezlanean murgilduta dabil. Hara zer kontatu digun lan horren gainean Virginia.

G. Lan berri batean murgilduta zaude orain, *Banbulo* antzezlanean, hain zuzen.

E. Bai. Jose Carmelo Muñoz, laguna, eta biok Txalo Produkzioak konpainiarekin gabiltza. Hiru urtean Cirque del Soleil-ekin Estatu Batuetan eta Kanadan egon ostean, itzuli egin gina jakin zuten. Horrela, gurekin harremanetan jarri ziren, abian jartzeko asmoa zuten proiektu berri baterako: Ramon Bareak zuzendu behar zuen Bernardo Atxagaren *Banbulo* ipuina, hain justu.

G. Eta proiektua gustatu egin zitzaizun.

E. Bai. Txaloren moduko ibilbidea duen konpainia batekin lan egiteak erakarri egin ninduen, baita horrenbeste goraiatzeko dudak zuzendari batekin lan egiteak ere. Hala ere, gehien erakarri ninduen izan zen ikuskizuna antzerki ez errealista bezala planteatuta egotea. Hau da, *Banbulo clowna* izan barik, *clown* kodean mugitzea. Sudurra eta guzti daukat, nahiz eta marroia izan eta ez gorria. Gainera, Bernardo Atxaga ezagutzeko aukera ere izan dugu.

Eta, begira, txakurrendako ere nahi ez nukeen uda pasatu ostean, hemen gaude...

G. Gaztelaniazko bertsoa estreinatu duzue.

VIRGINIA IMAZ

Clowna

«Umeak berehala identifikatzen dira 'Banbulo' rekin, nire pertsonaiarekin»



Virginia Imaz *Banbulo* txakurra da Txalo Produkzioak-en azken lanean.

E. Duela hamarren bat egun, Barakaldon, eta euskarazkoa urriaren 18an aurkeztuko dugu, Arriaga antzokian. Barakaldokoa ez zen atera guk nahi bezain ondo. Badakizu, kirioak dantzan, nekea... Kideen artean, estrenoari "estressssno" deitzen diogu. Baina, bueno, dagoeneko laugarren emanaldia egin

«**Banbulo txakurra da, eta zaila egiten zait ahotsa erregistro grabeagotan jarri eta postura maskulinoak egitea**»

dugu eta hori, ja, oso ondo atera da.

G. Zelakoa da *Banbulo*?

E. Arratoi-txakurra da. Nagia, gezurtia, jatuna, beldurta eta nazkantea. Baina, aldi berean, maitagarria, kixoteskoa, primarioa eta inuzentea. Umeak berehala identifikatzen dira *Banbulo* rekin. Pertsonaia oso gustuko dut, baina uste dut oraindik ez ditudala gorputzaren eta arimaren arteko zehaztasun guztiak egin. Hala ere, gustura nago pertsonaiarekin, haren inozentzia, primariotasuna eta sena hurbilekoak egiten zaizkio nire *Pauxari*, nire pailazoari.

G. Txakurra eta, gainera, arra, ez da makala izango hori antzeztea.

E. Zaila egiten zait ahotsa erregistro grabeagotan jartzea, baita postura "maskulinoak" jartzea ere. Hala ere, zailena da jaiotzaz donostiarra izanik eta bergararra adopzioz, Bilboko txakur bat antzeztea.

G. Noiz etorriko zarete Bergarara bizitzera?

E. Laster, baina ez Angiozarrera, San Juanera baizik. Etxe bat hartu dugu eta obrak bukatzean itzuliko gara.

G. Aurrera begira, zein beste proiektu duzue?

E. Oihulari-Trokolo koprodukzioa bat, *De profesión princesa* izenekoa uztailean aurkeztu genuen. Hori ere esku artean dugu. Horrez gain, atzera lagatako ikuskizun batzuk berreskuratatu nahi ditugu: *Modelo Clowntrapublicitaria* eta *Molestias Clównicas*. Gainera, azken bi horiek euskaraz eta frantsesez ere eskaini nahi ditugu. Bestalde, beste bi ikuskizun berri abian jarri nahi ditugu: *Harajangoikoa* eta *Demasiado Corazón*.

G. Hortaz, laster izango zaitugu berriro Pol-Polen?

E. Espero dut baietz.

Santa Marina osteko plaza egiteko lanak lehiaketara atera ditu Udalak

Plaza eta inguruak urbanizatzeko proiektua onartu du Gobernu batzordeak

Santa Marina osteko plaza, edo Oxirondo plaza, eta haren inguruak urbanizatzeko proiektua onartu du Udaleko Gobernu batzordeak. Lanak esleitzeko baldintzak ere lehiaketara atera dituzte, berrogeita zazpi milioi pezetako aurrekontuarekin. Obrak noiz hasiko diren, hala ere, ezin daiteke oraindik zehaztu.



Kataibia plaza eraikitzen dutenean, ezingo da autorik aparkatu. Oinezkoendako izango da, soilik.

Bai, aldiz, epe batean baino gehiagoan egingo dituztela. Gobernu batzordeak onartu berri duen proiektua Andoni Sistiaga arkitektoak egin du. Proiektu horrek Kataibia plaza eta ingurunea urbanizatzea aurrerikusten du. Hau da, Santa Marina ostean dagoen zabalgunean oinezkoendako plaza bat eraikitzea, eta horrez gain, Santa Marinako zubia zaharberitutako dute, eta Santa Marinako parroikia eta Usondoko parkea bata bestean integratu.

Lan horiek guztiak epeka egingo dira, eta, oraingoz, lehenengo faseko lanak esleitzeko baldintzak

atera ditu lehiaketara Udalak. Lehenengo fase horretan, Kataibia plaza urbanizatuko dute, eta aurrekontua berrogeita zazpi milioi pezetakoa da.

Proiektu hori gauzatzeko, hitzarmena sinatu behar izan zuen Udalak Santa Marina parrokiarekin; azken hori Kataibia plazaren jabe izanik, lurraren erabilera Udalari uzteko. Trukean, Udalak, hainbat konponke-

ta egin beharko ditu elizan, besteak beste, sakristau etxeko erreteila egin, Kataibiako elizpe txikiko hormak eta teilatua konpondu eta zoru berria jarri eliza eremuko gunean. Lan horiek guztiak ere, lehenengo fasean egingo ditu Udalak.

KATAIBIA PLAZA

Plazari dagokionez, zorua konponduko dute. Dauden zuhaitzak bota eta berriak

sartuko dituzte. Farola eta bankuak jarriko dituzte eta baita iturri bat ere. Horrez gain, ibaiaren kontran, 24 metro luzeko markesina bat jarriko dute. Izan ere, orain zapatu goizetan Zurraderon egiten den azoka Kataibia plazara eramateko asmoa dago. Bestalde, plaza gaur egun, batez ere, autoak aparkatzeko erabiltzen den arren, plaza berria oinezkoendako izango da soilik.

Pintura eta marrazketa

eskolak ematen ditut

943 76 40 14
Edurne

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

anezka

JANTZIGINTZA
IKASTAROA

Titulu ofiziala
BEREHALA HASIKO GARA!

Espoloia, 8. 943 76 59 25

Arbiaska pilotalekua laster konponduta


Angiozarko Arbiaska frontoia konpontzeko lanak datorren astean hasiko dira. Udal ordezkarien esanetan, datorren asteburuan Angiozarko jaiak pasatu eta berehala hasiko dira frontoia konpontzen, pilotalekuko zorua, hain zuzen. Izan ere, hainbat pitzadura azaldu dira eta pilotak ez du behar bezalako botea ematen.

Konponketa horiek egiteko gastua ekainean onartu zuten osoko bilkuran. Ez da, baina, Arbiaska pilotale-

kuak konponketak behar dituen lehenengo aldia. Eraikin berria da, duela bi urte estali eta egokitu zuten, hala ere, iaz, dilatazio-juntan inguruak altxatu egin ziren eta hori konpondu behar izan zuten.

Orain, pitzadurak agertu dira zoruan. Horren guztia-
ren arrazoiak, Udaleko iturrien esanetan, pilotalekua eraikita dagoen lurrean datza. Hau da, lurra ez omen da oso egonkorra.

Zorua konpontzeko au-




Angiozarko jaien ostean hasiko dira frontoia konpontzen.

rrekontua ia bost milioi pezetakoa da, hala ere, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Udalak akordioa sinatu zuen ekainean frontoia egokitu eta estali zuen en-

presarekin gastu berriari aurre egiteko. Akordio horren arabera, Udalak, enpresa eraikitzaileak eta obra zuzendariak ordainduko dituzte konponketa lanak.

Osintxun guztia prest indusketekin hasteko

Itxi dute dagoeneko Osintxuko tailer zaharreko inguru guztia; hortaz, dena gertu dago indusketak hasteko. Gogoratu beharra dago, Udalak hala eskatuta Aranzadi Zientzia Elkartekoek indusketa lanak egingo dituztela eliza pareko tailer zahar horretan. Tailerra baino zaharragoak diren horma-bular bat eta horma zati bat aurkitu zituzten han. Indusketen helburua da frogatzea azarna horiek XVI. mendekoa izan litekeen ermita batekoak diren.



Eskulan ikastaroa

Noiz:
urriaren 1etik
maiatzaren
27ra arte

Non:
Kartzela zaharrean

Ordutegia:
15:30etik
17:00etara

Prezioa urte guztirako:

5.000 PTA Jarduneko
bazkideek; 6.000 gainontzekoek

Informazioa:

Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)
943 76 08 19 / 943 76 36 61



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

EHE, Jardun eta AEKk euskara aldarrikatu zuten irailaren 26an

Irailaren 26a, eguazte-
na, Europako Hizkuntzen
eguna izan zen. Hori horre-
la, herriko hiru taldek, AEK,
Jardun eta EHEk, euskara-
ren egoera zein den gogora-
razi zuten beste behin. Izan
ere, aipatutako taldeek, Eu-
ropako Hizkuntzen eguna
ospatzekoa dela uste dute,
baina euskararen egoera
zein den ikusita, aldarrika-
tzekoa ere bai.

Horren guztiaren berri
martitzen arratsaldean, San
Martin plazan emandako
prentsurrekoan azaldu zu-
ten. Euren esanetan, fran-
tziar eta espainiar estatueta-
ko agintariek, euren konsti-
tuzioek, hizkuntza aniztasu-
na, berdintasuna eta erres-
petua bermatzen dituztela
diote, hori gorai patzen du-
tela. AEK, Jardun eta EHEko
kideen esanetan, baina,
euskaldunok «ezin dugu gu-
re hizkuntza babesten duen
legedia gorai patu, ez baitu-
gu». Gainera esandakoaren
arabera, Frantziako konsti-
tuzioak «euskara existitzen



Hainbat lagun batu zen euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko bilkuran.

denik ere ukatzen du», eta
Espainiakoak «gatzelaniaren
menpe bizitzera zigortzen
gaitu, desagerpenerako bi-
dea urratuz».

EUSKAL ADMINISTRAZIOA

Euskal administrazioa ere
aipatu zuten prentsurreko-
an: euskaldunon hizkuntz
eskubideak eta euskararen
normalizazioa bermatzeko
beharrezkoak diren neurri
eta bitartekoak aktibatzea
eskatu zioten. Horren ildo-
tik, euskara inongo lurralde-
tan eta esparrutan normali-

zatu gabe dagoela azaldu
zuten, «betiere, kontuan
hartuta euskaldunok euska-
raz bizitzeko eskubide osoa
dugula». Horrekin guztiare-
kin, aipatutako hiru taldeek
deituta, hainbat lagunek
kontzentrazioa egin zuten
San Martin plazan-eguzten
arratsean.

Bestalde, bihar, zapatua,
euskaldunon hizkuntz es-
kubideen alde egingo duten
manifestaziorako deia za-
baldu zuten. Manifestazioa
San Martin plazan hasiko da
12:30ean.

Xabier Arregi, EHko zinegotzi berria

Xabier Arregi "Txa-
pi", EHko zinegotzi izan-
go da Bergarako Udale-
an aurrerantzean. Arre-
gik joan den astelehene-
an izandako osoko bil-
kuran egin zuen kargua-
ren zina. Martin Guridi
zinegotzi ohia ordeztu-
ko du. Bestalde, Xabier
Arregik Udaleko Euska-
ra batzordean hartuko
du parte.

Domekan itxiko dute turismo bulegoa

Domekan, hilak 30,
esango dio agur turismo
bulegoak udako denbo-
raldiari, eta Aste Santura
arte itxi egingo dute. Ha-
la eta guztiz ere, dome-
kara arte ohiko ordute-
giarekin jarraituko du:
astelehenetik egubakoi-
tzera 10:30etik 14:00eta-
ra eta 16:30etik 19:30era;
domeka eta jaiegunetan
11:30etik 14:30era. Bisi-
taldi gidatuak ere egingo
dituzte egunero, doan.



BANKINTER

%3,5etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

*Irekiera
komisioa:
%1.
35 urte
bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Trikiti eskola

Noiz:

Urriaren 1etik
ekainaren 22ra

Non:

Kartzela zaharrean

Egunak:

Panderoa: astelehen eta
egubakoitzetan

Soinua: martitzen,
eguazten eta zapatuetan

Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean
Soinua: 2.650 PTA hilean



Berrigara

466 zenbakia.
2001eko irailaren 28a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberebizbar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Donostiako Zinemaldira juateko ohiturarik badaukazu? Jarraitzen dozu zinemaldixa?



Loreto Lalinde

Ez, ez naiz sekula juan. Ez naiz zinemazalia.



Manu Aranburu

Ez naiz sekula juan, eta ezingo naiz juan. Izan be, asteburuetan lan egin bihar izaten dot. Hala be, jarraitzen dot Zinemaldixa.



Sabin Etxezarreta

Ez, ez naiz sekula Zinemaldixan egon. Umiekin juaten gara zinera, baiña bestela ez. Ez dot Zinemaldixa jarraitzen.



Elisa Amasorrain

Sekula ez naiz juan; zinia gustatzen jat, baiña Donostia urrin geratzen jat, eta gaiñera lanakin eta...



Maria Angeles Aiastui

Zinia gustatzen jat, baiña ez daukat juateko ohiturarik. Behin egon nintzan, baiña Donostian bertan nengualako.



Maite Villar

Ez, sekula ez naiz egon. Zinia gustatzen jat, baiña afiziño haundirik be ez daukat.

tira biraka oihan vega



adituen esanetan

Txakurren katarroak

Gizakioi gertatzen zaigun bezala, txakurrek ere katarroa izateko arriskua daukate urte sasoi honetan, udazkeneko lehen asteetan batik bat. Txakurren jabeek askotan uste izaten dute animaliei ezarriari hezurren bat edo pilotaren bat (jolasean ibiltzean) trabatu zaizela, ez tul sikua izaten dutelako. Baina ez tul siku hori katarroaren sintoma garbia izaten da. Infekzio mota hau birus batek sortutakoa da, eta batzuetan konplikatu egiten da bakteriekin, onddoekin edo mikroplosmekin (arnasketari eragiten dion beste agente mota bat). Bestalde, gizakiek gertatzen den moduan, ez tul oso erraz kutsatzen da txakur batetik bestera.

Txakurkumeek (sei hilabete baino gutxiagoko txakurrek) arazo gehiago izaten dituzte katarroaren erruz, defentsak garatzeke dituztelako oraindik. Ondorioz, zenbaitetan katarro hori bronkitisa edo pneumonia bihur daiteke, sintomak larrituz gero.

Ez tul sikua areagotu egiten da txakur



ROMAN LAZPIUR

Albaitaria

«Txakurren ez tul sikua katarroaren sintoma garbia izaten da. Ez tul erraz kutsatzen da txakurren artean»

kurra asaldatzen denean, korrika egiten denean edo etxetik irten eta temperatura aldaketa dagoenean, hau da, aire hotzagoa jasatean.

Ez tul bakteriekin edo onddoekin konplikatu denean, txakurak sukarra izan dezake eta, era berean, jateari uzten dio. Horrelakoetan, ez tul hezea izaten da, mukiekin eta animaliek jolaserako gogoia galtzen dute, geldi egoten dira gehienetan. Txakurra auskultatzerakoan arnasketaren soinua nahiko ozen antzematen da.

Tratamenduari dagokionez, katarroa arina denean, antibiotikoak eta jaraberen bat hartzea nahiko da. Katarroa larrituz badao, berriz, txakurra ospitalizatu beharra egoten da hainbat kasutan, sueroarekin eta benabarneko antibiotikoekin bronkopneumonia prebenitzeko.

Dena den, prebentzio modurik onena txertoa izaten da. Txakurkume direnetik animaliei txertoa jartzean horrelako arazoak saihas ditzakegu. Urte osoan dago txertoa jartzeko aukera.



Txakurkumeek katarroa izateko arrisku handiagoa daukate.

bergarako zuhaitzak



Intxaurrenondoa, Kataibian.

Intxaurrenondoa

Juglans regia

Enbor zuzen, azal leun eta garaiera ertaineko zuhaitz hostogalkorra da. Intxaurrenondoren ezaugarri bat da hostoek denbora laburra irauten dutela zuhaitzari lotuta, eta erraz bereiz daiteke hostailaren kolorea beste zuhaitz batzuetatik.

Jeneralean fruituagatik eta egurragatik (ebanisterian-eta oso estimatua) landatua izan arren, erraz ikus daitezke bide bazterretan itzal-zuhaitz gisa landatuta, nahiz eta intxaurrenondoren itzalak burukomina sortzen duela esaten den.

Euskal Herrian, etxe ondoan intxaurrenondoa edukitzeak amets gaiztoak sortzen zituen ustea zegoen.

Erabilera ugari du intxaurrenondoa. Alde batetik, fitoterapiari; hostoak, azalak eta oskol berdeak lehorgarriak dira, intxaurrenondoa, aldiz, jangarriak eta ezaugarri bermifugoak dituzten oliotan aberatsak. Bestalde, hostoek, kizkurtzean, oso usain garratza askatzen dute; arrazoi horregatik, ez da harriztekoa intsektuak-eta ohetik eta arropa artetik uxatzeko erabili izana.

Bergaran, Santa Marina eta Katabia arteko plazan daude, laster urbanizatu egingo dute eta han dauden intxaurrenondoa bota egingo dituzte. Hausnarketa moduan, uste dut zuhaitzak kontuan hartu behar direla urbanizatzeko orduan, bota aurretik ondo aztertu ea posible den eraikiko duten urbanizazio berriari mantentzea edo ez. Ez du zentzurik zuhaitzak botatzeak, egoera onan badaude eta egokiak badira, behintzat, gero zuhaitz berriak sartzeko.

Testua: Maitane Arizabaleta.



Non dago zebra-bidea?

Poligonotik jende asko pasatzen da, eta **trenbide zaharreko bidea** hartzen dute eguneroko ibilaldia egiteko. Jende mordoia ibiltzen da inguru horretan paseatzen. Horietako paseatzaile batek deitu digu kexa bat azaltzeko. Poligonotik trenbide zaharrerako bidean, errepidea zeharkatzeko **zebra-bidea** dago (ezkerreko argazkian), edo zegoen; izan ere, denborarekin, **desagertzen doa**, eta ia ikusi ere ez ei da egiten. Hori dela eta, pasabide hori behar den moduan margo-tu beharko luketela adierazi digu deitu digun lagunak, autoan doazenek ere ez dutelako ikusten eta arriskutsu dagoelako gune hori.

Reyes Korkostegi omendu zuten

Joan zen domekan, Oñatiko artzain txakurren nazioarteko txapelketan, **Reyes Korkostegi omendu** zuten. Reyes oñatiarra zen jaiotzez, nahiz eta urte askoan Bergaran bizi izan zen. Jakingo duzue, Oñatiko alkatea izan zen 21 urtez. Gainera, Oñatiko artzain txakur txapelketaren bultzatzaile nagusietakoa izan zen, eta baita euskal artzain txakur arrazaren bultzatzaile sutsua ere. Omenaldian **Reyesen oroimenezko plaka** jarri zuten Euskal Artzainaren Monumentuaren alboan. Horrela, txapelketako antolatzaileek, Reyesek egindako lana eskertu nahi izan zuten. Argazkian ikus daitekeen moduan, hantxe izan ziren bere senitartekoak ere.



BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu estalkiak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskoziuri 6 Tf. 943 76 56 62

SANTOS



Elektrikako tresnak eta argiztapena

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

BERGARA
Margoak

Amillaga 1
1 pabilioia, goiko solairua
162 posta kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31
Faxa: 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

Ion Murgizu

Orotariko pintura
Iztukuak
Papereztatzeak
Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iion@euskalnet.net

B e r g a r a k o


OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK:** **ARTAZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **AGIRRE HORTZ KLINIKA.** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23 • **ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA:** **SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43 • **BELASTEGI Mariasun.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI**

Pablo. San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA.** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA.** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita.** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa.** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK:** **ANA OIARZUN.** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

Osasunez bizi izateko!

BAKEROAK EGITEN
HASIZ GEROZTIK,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERDIN



XIX. mende erdialdera, Denim oihala Kaliforniako meategietako kanpadendak egiteko erabiltzen zuten. 1870eko hamarkadan, galtzak diseinatu zituzten oihal harekin: bakeroak.

1950eko hamarkadan, rock-and-rollaren eta zinema estatubatuarren eraginez, mundu osora zabaldu ziren bakeroak.

Debagoienean, 1846an, Fabrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara sortu zen. 1974an, Tavesa izenarekin ordurako, bakero oihala egiten hasi zen.

Gaur egun, eskualdeko bakero oihal gehiena bi lantegik ekoizten dute: Algodonerak eta Narvaizak. Biak batuta, 300 lagun ari dira lanean eta urtean 4.500 milioi inguruko salmentak dituzte.


Ariznoa

gimnasia
erritmiko
taldea



Irailaren 17an gimnasia erritmikoko denboraldia hasi zen. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono hauetara informazioa jasotzeko: 943 76 12 84 (Margari) eta 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAn: martitzen, eguen eta eguakitzetan. 18:00etan
Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.
Klaseak ANTZUOLAn: martitzen, eguazten eta eguenetan



Aupa neskak, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

.....Berrigara Gida 2002

Berrigara Gida 2002, Bergara, Antzuola eta Elgetako telefonoen gida prestatzen dihardugu.

Uxue Zabaleta (argazkian)
arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari,
lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.



Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak
eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko
dugun Berrigara Gida 2001 liburutxoak:

Bergara, Antzuola eta Elgetako ia telefono guztiak.

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi
baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri
bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke:
943 76 03 97.

Berrigara

Klinika Laguntzaille ikasketak egin zittuan. Hiru urtez Arrasateko Klas erropa dendan lanian jardun ostian, uztailian, Pascual telefonía dendan hasi zan, Ibargarai kalia. Hogeita zazpi urte dauzka eta Gemini zeinukua da.

Telefonoz asko berba egittekua zara?

Lanian, egun osuan nago telefonuari pegauta.

Telefonoz, egunez ala gabez?

Egunez. Etxian, gabez, eseki barik lagatzen dogu telefonua.

Ze esaten dau zure kontestadoriak?

Telefonikak ekartzen dabena daukagu.

Lagatzen dozu mezurik kontestadorian?

Inportantzia haundiko gauzak dienian.

Poltsikoko telefonua ala fijua?

Fijua erabiltzen dot gehixen.

Automobillian zoiazela poltsikokua erabiltzen dozu?

Bai, baiña esku-askeekin, e!

Deixak jaso ala egin?

Jasotzia nahixago...

Zeñen deiza jasotzia gustauko litzakizu?

Joaquin Sabinarena, kantuan.

Laneko gauzarik onena?

Gure artian dagoen girua.

Eta txarrena?

Ordugegixa.

Zein da dendan daukazuen poltsikoko telefonorik garestixena?

Nokia 9210 modelua (144.000 pezeta).

Denbora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Buzeztzia eta etxian lasai egotia.

Liburu bat?

Los pilares de la tierra (Ken Follet).

Aintzane Arenaza

Filmik gustokuen?

Blade runner.

Egunkarixan irakurtzen dozun lehenengo gauzia?

Atzetik hasten naiz beti.

Sukaldari ona zara?

Ez.

Janari eta edari bat?

Entsalada on bat eta Coca Cola *light*.

Zenbat ordu egitten dozu lo?

Hamar bat. Lo pillua egitten dot.

Manixa bat?

Kaltzetiñekin lo egittia.

Gustoko jantzi bat?

Praka bakeruak.

Kolore bat?

Gorrixa.

Zure bertute eta defektu bat?

"Pronto" haundixa daukat. Bertutia?

Segittuan pasatzen jatela.

Telebisiñoko programa bat?

Periodistas eta *Ally Mc Beal*.

Iragarki bat?

Malibu-rena gustatzen jat.

Loterixan jokatzen dozu?

Gabonetan bakarrik.

Berrehun millioi irabazi ezker, ze?

Etxia erosi eta ingurukuekin biaje bat

egingo neuke, Australiara-edo.



Gozogintzan aitzindari.

Nutrizio ikastaroa

Gaiak:

- Proteinak, karbonhidratoak, gantzak...
- Janari taldeak
- Errazioak
- Mediterranear dieta
- Gaixotasunak
- Etiketak

Noiz:

Urriaren 15a, 18a, 22a eta 25a. 19:30etatik 20:30era

Non:

Kartzela zaharrean

Prezioa:

Bazkideek 2.000 pezeta.
Gainerakoek, 2.500 pezeta.
Informazioa: 943 76 36 61



JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



Euskara ikasten Bergaran

Herriko bi euskaltegiek hasi dute kurtso berria

Urria era guztietako ikastaroak hasteko garaia da. Euskara ikasten hasteko ere ez da txarra. Bergarako bi euskaltegiek itxi dute izena emateko epea, eta 150 bat lagun hasiko dira aurten euskara ikasten. Ikasle kopuruak behera egin du, baina, seguruena, oraindik ere bat baino gehiago matrikulatuko da.

Euskara ikasten hasteko mila arrazoi egon daiteke: batek umeak dituelako eta euskaraz egin nahi duelako umeekin; besteari lanean halaxe eskatu diotelako; Euskara Gaitasun Agiria eskuratu nahi duenik ere badago, eta baita bertako hizkuntza izanik, euskara ikasi beharra dela sentitzen duenik ere.

Pertsona bakoitzak izango ditu bere arrazoiak, baina euskaltegietan, kontua euskara ikatea da. Ikasteko hain nekeza ei den euskara. Horrexetarako daude, hain zuzen ere, euskaltegiak; lan nekez hori erraztu, eta euskara irakasteko.

Bergaran bi euskaltegi ditugu: AEK-Akulu eta Bergarako Udal Euskaltegia, hain justu. AEK-Akulu euskaltegiko zuzendariak, Kristina Markinak, azaldu digunez, «azken urteetan izan ditugu gorabeherak, baina oro har ez da aldatu ikasle kopurua. Aldatu dena ikasleen tipologia izan da». Kristinaren esanetan, gero eta gehiago dira lanarekin lotutako arrazoiak dituztenak.

Izaskun Soraluze Bergarako Udal Euskaltegiko zuzendaria ere bat dator Kristinarekin: «gero eta ikastaro gehiago ematen ditugu lantegietan», azaldu digu Izaskunek.

Dena dela, gutxi bada ere, jaitsi

egin da ikasle kopurua. Horren arrazoiak aztertu izan dituztenekin bat dator Kristina eta Izaskun ere. Langabeziak behera egin du, eta horrek jaitziera ekarri duela esaten dute; izan ere, denbora gutxiago dute lanean dihardutenek. Beste arrazoi bat, gazteak, eskoletatik euskara ikasita eta alfabetatuta ateratzen direla izan daiteke. Hori, gainera, ez litzateke arrazoi txarra izango, alderantziz, arrazoi ezin hobea izango litzateke euskararendako. Kontuak kontu, aurten, guztira, 150 bat lagun arituko dira euskara ikasten Bergaran, baina datu zehatzik ez daukagu oraindik.

URRATSEZ URRATS

Euskaltegi bakoitzak bere erara antolatzen ditu ikasketa mailak, HABEk markaturiko irizpideei jarraiki, betiere. Akulun, esaterako, lau maila edo urrats bereizten dituzte. «Berez, 12 urratsetan banatzen da euskara ikasteko prozesua, baina Bergaran talde handiagoak egiten ditugu», diosku Kristinak. 0 urratsa deitzen diote mailarik baxuenari; gero, behe, erdi eta goi urratsak dituzte. Udal Euskaltegian ere antzerako banaketa egiten dute: oinarritzko maila, lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena bereizten dituzte.

Euskaltegiak, baina, ez dira bakarrik euskararik ez dakitenendako. Euskaldun zaharrek ere badute zer ikasi. Alde batetik, gero eta gehiago dira Euskara Gaitasun Agiria lortu nahi izaten dutenak, hori ere lan-munduarekin lotuta; izan ere, gero eta lanpostu gehiagotan eskatzen dute aipatutako agiria. Bestetik, asko dira alfabetatu gabeko euskaldun zaharrak, eta horiendako ere egoten dira ikastaroak. Hala ere, Kristinak eta Izaskunek aipatu digutenez, jendea ez dago kontzientziatuta. Oso gutxi dira alfabetatu nahi dutenak, dirudienez, jendeak ez duelako horretarako beharrik sentitzen.

IKASGELATIK LANTEGIETARA

Esan bezala, herriko euskaltegietako arduradunak bat dator azkeneko urteetan ikasle tipologia aldatu dela esatean. Aldaketa horren alde nabarmenena da, euren kabuz ikastera datozen ikasleak baino gehiago direla enpresen bitartez heldutakoak. Horrek, hala ere, ez du esan nahi beti behartuta joaten direnik. Izan ere, asko dira enpresek ematen dieten aukera aprobetxatuz, euskaltegiara gustura joaten direnak.

Euskaltegian eskolak emateaz gain, lantegi eta enpresetara ere joaten dira irakasleak. Gero eta enpresa gehiago



AEK-Akulu,
Masterrekan.



Udal Euskaltegia,
Zabalotegin.

dago, gure bailaran batez ere, euskalduntze planetan murgilduta. Plan horien oinarria langileak euskaldundu eta euren eguneroko lanean euskara normaltasunez erabiltzea da. Hori lortzeko hainbat ikastaro antolatzen dituzte lantegietan. Akuluk Bergara eta Antzuolako lau enpresatan eskainiko ditu ikastaro horiek; Udal Euskaltegiak, berriz, Antzuolako bitan eta Bergarako baten.

Enpresetako ikastaro hauek ez dute bakarrik ikasle tipologia aldatu. Horrek, era berean, ohiko materiala egokitu beharra ekarri du. Hau da, ez zaio berdin irakasten euskaltegian talde arrunt batean ari den ikasle bati, eta lantegiko langile bati. Izan ere, lantegiaren helburua ez da langile hori euskaldundu eta kalean euskara erabil dezala, baizik eta bere lanean euskaraz aritzea. Horrela, enpresetako euskara teknikariek eta euskaltegiatako ardura-dunek elkarrekin prestatzen dituzte ikastaroak eta materiala.

DENBORA ERE BEHAR DA

Egunean bi orduko eskolak izaten dituzte euskaltegiatako ikasleek. Jende askori ez zaio hori gustatzen, «egun osoa lanean pasatu eta gero bi orduz ikastea gogorra delako; ulertzekoa da», diosku Izaskunek.

Zergatik ari zara euskaltegian?

1. MARI PAZ IBISATE

Pentsioduna

Seme-alaba eta bilobekin bazkaltzen jarri nintzen batean, euskara ikasi behar nuela sentitu nuen. Denak euskaraz ari ziren, eta nik ez nuen ezer ulertzen. Horrela, iaz hasi nintzen euskaltegian, 63 urterekin. Gida baimena 61 urterekin atera nuen, eta zera esan nion neure buruari: gidabaimena atera badut, zergatik ez dut euskara ikasiko?

2. MAITANE ARIZABALETA

Langilea

Zoritxarrez, Euskal Herriko hezkuntza sisteman, goi mailako hainbat ikasketa ezin ditugu euskaraz egin, eta hori gertatu zait niri. Horrela, euskaraz idazteko neukan gaitasuna galdu egin dut, eta horregatik eta hizkuntza aberastearren hasi naiz euskaltegian. Bide batez, ia EGA ateratzen dudan!

3. JESUS ZABALETA

Langilea

Euskara maila hobetu nahi nuelako hasi nintzen euskaltegian. Nire lanean beharrezkoa ikusten nuen, gainera, eta batez ere, erabilera mailan hobetu beharra neukala ikusten nuen. Maila nahiko baxua daukadanez, elkarrizketa luzeetan, esate baterako, galdu egiten naiz. Nire helburua ez da titulu bat ateratzea.

4. RICHARD FERNANDEZ

Langilea

Kalean jendearekin berba egin ahal izateko ikasi nahi dut euskara, eta horrexegatik eman nuen izena euskaltegian. Konturatzen naiz jende mordoak berba egiten duela euskaraz, eta harremanetarako oso garrantzitsua dela. Beti eduki izan dut gogoa euskara ikasteko, eta azkenean ari naiz ikasten.



Horregatik, Bergarako Udal Euskaltegiak bestelako ordutegiak ezarri zituen; horrela, badago astean hiru egunetan bakarrik joaten denik ere.

Aipatutako arazoari erantzuna ematen dion beste aukera bat, nork bere kontura ikastearena da, eta aurten ezarriko dute sistema hori Bergarako Udal Euskaltegian. Era horretan, posible izango da norberak nahi duenean euskaltegira joan eta ordenagailuko programa bati esker euskara ikastea. Ikasle horiek ere irakasle bat izango dute edozertan laguntzeko. Dena dela, Izaskun Soraluze Udal Euskaltegiko zuzendariak azaldu digunez, «oraingoz, laguntza bezala bakarrik erabiliko dugu sistema hori».

EUSKARA IKASI ETA GERO, ZER?

Hori izan ohi da arazorik handiena. Euskara ikastea, esaten dutenez, nahiko nekeza da. Baina, ikasi eta gero erabiltzea eta horretarako aukerak topatzea ere zaila ei da. Hala ere, Bergara herri euskalduna izanik, ikasten dutenek badirudi badutela ikasitakoa praktikan jartzeko aukerarik.

Horretarako oso garrantzitsua da bertako euskara ere ikastea, Bergaran erabiltzen duguna. Izan ere, ikasleek kalean ez dute euskara batua entzungo.<

Senior eskubaloi taldeak igoera fasea jokatzeko helburua dauka

Zapatuan ligako lehen partidua jokatuko du Eibarren

Bergara KEko senior mailako eskubaloi taldeak liga txapelketa hasiko du zapatuan Arrateren aurka, 16:45ean, Eibarko Ipurua Kiroldegian. Edu Orgazek entrenatzen duen taldea lehen maila territorialean arituko da, beste 12 talderekin batera.

Orgazen arabera, «helburua sailkapeneko lehen bien barruan sailkatzea litzateke, 2. maila nazionalerako igoera fasea jokatu ahal izateko». Joan zen denboraldian bergararrak laugarren postuan sailkatu ziren. Esan bezala, zapatuan ligako lehen partidua jokatuko dute Eibarren. Aurrendenboraldian, Labegaraietako Kiroldegian, Bergarak 27-20 emaitzarekin irabazi zien eibartarrei. Hala ere, bihar ez dute partidu erraza izango mahoneroek, Edu Orgazen hitzetan, «Arrate teknikoki oso talde ona delako».

Bergarako taldeak irailaren 3an ekin zien entrenamenduei. Abuztuan ere Orgazek lana agindu zien bere jokalariei. Irailean astero bost egunez entrenatu dira, eta oraingo astean lau entrenamendu egingo dituzte, lehen partidura sasoi onean heltzeko asmoz. Edu Orgazek dioenez, «talde oso gaztea daukagu, baina fisikoki oso ondo gertatuta. Uste dut sailkapeneko goialdean egoteko moduko taldea daukagula, plantila motza dugun arren. Lehen-



Argazkian, senior eskubaloi taldea, martitzeneko entrenamenduan.

biziko linean lateralak eta zentralak faltan botatzen ditut». Orgazek bigarren denboraldia beteko du aurten senior taldearekin. Aurretik, bost urte eman zituen kadete eta jubenil mailako nesken taldeak entrenatzen.

Faboritoei buruz berba egitea zaila da: «Urtetik urtera aldatuz doaz, baina hasiera batean Aierru, Egia, Donibane eta Urola dira talderik indartsuenak».

Zapatuan Arrateren aurka jokatu ondoren, hurrengo astean Bergarak etxeko lehen partidua izango du Labegaraietan, Donibaneren kontra.

KADETEAK ETA GAZTEAK

Kadete eta gazte mailako eskubaloi taldeek lagunarteko partiduak izango dituz-

te domekan, Labegaraietan. Goizeko 11etan kadeteek Urolaren kontra jokatuko dute eta jarraian, 12:15ean, Bergara eta Urolako gazte mailako taldeak aurrez aurre izango dira.

Edu Iñarra, Aitor Ibarra eta Edu Eguren zuzentzen duten kadete taldeak urriaren 7an hasiko du liga, eta gazte mailakoak urriaren 21ean.

GAZTETXOEI DEIA

Bestalde, BKEko eskubaloi sailak infantil eta kadete mailako taldeak osatu nahi ditu aurtengo denboraldian. Hori dela eta, eskubaloian jokatu nahi duten 13-15 urte bitarteko gatzetxoei dei egiten diete, martitzen edo egubakoitzetan Labegaraietako Kiroldegira joateko, 18:30etik aurrera.

Senior taldea

ATEZAINAK

Ekain Sotil	22 urte
Gorka Astaburuaga	24 urte

LATERALAK

Garikoitz Arregi	25 urte
Iban Orgaz	19 urte
Ion Mendizabal	18 urte
Joseba Larrañaga	19 urte
Urko Altzerreka	21 urte

HEGALEKOAK

Lander Juaristi	21 urte
Aitor Sanchez	23 urte
Ruben Sanchez	20 urte
Asier Mujika	20 urte
Iosu Labaka	18 urte

ZENTRALAK

Ibai Goenaga	22 urte
Ibai Gomez	19 urte

PIBOTEAK

Eugenio Cabo	29 urte
Mikel Agirrezabal	21 urte
Gorka Unamuno	18 urte

Entrenatzailea Edu Orgaz

'Piti' Unamuno, BKEko presidente dimititu berria

«Ez nengoen preferente futbol taldeko primak jaisteko gertu»

Zuzendaritzako hainbat kiderekin izandako desadostasunak medio, "Piti" Unamuno BKEko presidentea dimisioa aurkeztu zuen aurreko astean.

G. Zergatik aurkeztu duzu dimisioa?

E. Zuzendaritzako beteanekin diferentziak izan direlako. Etxeko jokalariekin bakarrik ezin da preferente mailan ibili, eta ekainean Juanina Garai entrenatzaileak eta biok plantila osatzeari ekin genion. Kanpotik etorritakoei joan zen denboraldiko primak eskaini dizkiegu, baina hainbat direktibok euren desadostasuna azaldu zuten. Joan zen asteko bileran zera galdetu nien: ea egindako fitxaketekin eta eskainitako primekin ados ziren. Ezezkoa izan zen, eta presidente kar-



"Piti" Unamunok urtebete egin du BKEko presidente karguan.

gua uztea erabaki nuen.

G. Zuk dimititu ondoren, zer gertatuko da Garai entrenatzailearekin?

E. Ekainean bozketa egin behar izan genuen zuzendaritzakook Juaninaren jarraipena baieztatzeko. Aldekoak eta kontrakoak zituena. Orain, zuzendaritzak berarengan konfiantza azal-

tzen duen bitartean taldean jarraituko duela uste dut.

G. Zein da taldearen egoera ekonomikoa?

E. Aurten espero ez genituen gastu batzuk izan ditugu. Barrenkaleko lokalaren fatxada eta eskailera berritzeak 1.700.000 pezeta suposatu digu eta, horrez gain, tabernako aire egoki-

tua berritu beharra dago. Horrek bi milioi pezeta inguru balio du. Beraz, futbolearen jolasten hasi aurretik 4 milioiko gastuak ditugu. Sarrera estrak topatzea ezinbestekoa da, aipatutako gastuei aurre egiteko.

G. Azken batzarrean Udalaren politika kritikatu zenuen.

E. Udalak 2.200.000 pezeta eman zigun iaz, eta oso gutxi iruditzen zait, kontuan izanik kategoría guztietako fitxa kopurua. Herriko taldeen artean dirua banatzeko erabiltzen dituen irizpideak aldatu beharko litzuzke Udalak.

G. Preferente taldeak ez du hasiera onik izan ligan.

E. Nik uste dut Gabonak inguruan ikusiko dela taldearen benetako maila. Zazpi fitxaketa egin dira eta normalena sailkapeneko goialdean egotea litzateke.

Astebukaeretan ez dakizula zer egin?

9 eta 11 urte artian baldin badaukozu (4., 5. eta 6. maila), kartzela zaharrian aukera bikaina daukozu

- Zapatuetan eta domeketan arratsaldeko 4retatik 8retara.
- Karneta egitako 2 argazki eta urteko kuota bat: 3.600 pezeta.
- Urriaren 6xan hasiko ga!

Eskulanak
Jolasak
Irteerak
Akanpadia

Bideo emanaldixak
Hizketan egitako txokua...
eta hile bukaeretan
Trumilka eguna



Ariznoa taldea sei urtetik gorako neskek hartzeko prest

Ariznoa gimnasia erritmikoko taldeak sei urtetik gorako neskek hartzeko deia egin du. Beraz, taldean parte hartzeko interesa duten neskatilek ondoko telefono zenbakietara deitu dezakete: 943 76 12 84 (Margarit) eta 943 76 56 75 (Jabi). Bigarren urtez jarraian Sonia Corredera eibartarra izango da entrenatzailea. Ariznoako kideak joan zen irailaren 17an hasi ziren entrenatzen. Bergaran martitzenetan, eguenetan eta egubakoitzean entrenatzen dira, 18:00-etatik aurrera Kiroldegian. Antzuolan, berriz, Frontoian



Ariznoa taldean 6 urtetik 16 urtera bitarteko 35 lagun ari dira.

ARTXIBOA

entrenatzen dira martitzenetan eta eguenetan 16:30etik 17:30era, eta eguaztenetan 14:30etik 16:30era. Gaur

egun 6 urtetik 16 urtera bitarteko 35 bat neskatila ari dira Ariznoa gimnasia taldean.

Kirol argazkien lehiaketa

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak kirol argazkien lehiaketa deitu dute. Edozein zalek parte har dezake eta lanak (zuri-beltzean zein koloretan) emateko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).

López garaile San Martin sarian

David López (Cafes Baqué) txirrindulariak irabazi zuen domekan XXXVI. San Martin saria. Ander Agirre (Ulma-Cegasa) izan zen lehen bergararra, 17. postuan, minutu bat eta 2 segundora.

LABEGARAIETA FUTBITO TXAPELKETA

Astebukaerako partiduak

ZAPATUAN (barruan)

10:30. Bar Ugarte-Agirrebeña Torrekua
11:30. Torrekua-Biciprecision Igartua Komando Piperrak
12:30. Komando Piperrak-Kanpazar Harrobiak Bicipre. Igartua

DOMEKAN (barruan)

16:00. T.H.T.-Vacalouras Dedo Pafarru
17:00. Dedo Pafarru-Timofonica Team Etengabe
18:00. Etengabe-Aterpe Arte kale pizzeria
19:00. Arte kale pizzeria-Bar Bedarreta Mongatxurak
20:00. Mongatxurak-A Ze Flaxa Bar Bedarreta

DOMEKAN (kanpoan)

09:30. Bar Canalejas-Txipiron Aluminios Kresala
10:30. Aluminios Kresala-Artusamak Errotagain
11:30. Bildurbarek-Errotagain Eri
12:30. Eri-Guasa Team Bildurbarek

Dharra: Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ondoko taldeei jokalaritza gutxienez NANen fotokopiak ematea falta zaie: Errotagain, Patxaran Team, Artusamak, Bar Bedarreta, Vacalouras, Etengabe, A Ze Flaxa, Eri, Amilotx, Torrekua, Kanpazar Harrobiak eta Guasa Team.

Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Idiazabal
Infantilak
Zapatua. 10:15. Ipintza
Bergara-Almen
Neskek
Zapatua. 11:30. Ipintza
Bergara-Amaiak Bat
Lehen erregionala
Zapatua. 16:30. Agorrosin
Bergara-Hernani
Ohorezko gazteak
Zapatua. 18:15. Ipintza

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Bergara-Txapagain (kadeteak)
Bergara-Añorga (seniorrak)
Egubakoitzean, hilak 28,
Udal Pilotalekuan, 19:30ean.



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

BOLU SUKALDEAK

Zure sukaldearen
diseinua eta
aurrekontua
konpromiso barik

Bolu, 22-behea, BERGARA
Tel. eta faxa: 943 76 27 02

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

ERRROMERIA GIROA

EUSKAL DANTZAK IKASTEN: FANDANGOA, ARIN-ARINA...



UMEEN IKASTAROAREN HASIERA: urriaren 3an 17:00etatik 18:00etara.
 HELDUEN IKASTAROAREN HASIERA: zapatuan, urriaren 6an, 11:00etatik 12:00etara
 TOKIA: Aranzadi ikastolako geletan (betiko tokian)
 URTEAN ZEHAR BERGARAKO AUZOETARA IRTEERAK EGITEN DITUGU

MOISES AZPIAZU DANTZA TALDEA

Argibideetarako deitu 943 76 15 40 telefonora

Merkatariok adi!


Zuen iragarkia

**GOITBn agertzeko
 aukera paregabea!**

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

**Deitu 943 76 03 97
 telefonora!**

Goitb
 Goiena Telebista



MIGUEL ANGEL ELKORBEBEZIBAR

bonofotoa

Zein da 1897. urtean Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua hiltzeagatik Bergarako kartzelan garrotez exekutatu zuten anarkista italiarraren izena?

galde debalde

1. Zein sinonimorekin lotuko zenuke *lekaixua* bergarar berba?


- A- Irrintzia
- B- Negarra
- C- Zopa beroa

2. Zenbat milioiko aurrekontua dute Kataibia plaza urbanizatzeko lanek?

- A- 74 milioi pezeta
- B- 87 milioi pezeta
- C- 47 milioi pezeta

3. Zein da BKEko senior mutilen eskubaloit taldeko entrenatzailea?

- A- Edu Orgaz
- B- Josetxo Muniategi
- C- Edu Iñarra



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Jone Santamariarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Joneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **1956. urtean**
Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Koipesol
ekilore olioa, litroko botella

149 PTA!
(0,90 e.)

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Datorren zapatutik aurrera hainbat ekitaldi ekarriko ditu Udazken Kulturalak

Urriaren 6an hasiko da Udazken Kulturala, eta hiru hilabete zehar, hainbat kultura ekitaldi ekarriko dizkigu. Gregoriano emanaldi batek irekiko du egitaraua, eta clown emanaldi batek itxiko. Tartean denetarik egongo da.

Antzerkia, musika, hitzaldiak, erakusketak... Udazken Kulturalak hainbat arlo jorratuko ditu urriaren 6an hasi eta abenduaren 30era bitartean.

Urriak zortzi ekitaldi ekarriko ditu. Lehenengoa datorren zapatuan, urriak 6, izango da. Donostia Ereski Schola Gregorianista taldeak *gregoriano* kontzertua eskainiko du, Mariaren Lagundia ikastolan, 19:30ean. Horren ondotik, beste zazpi emanaldiak etorriko dira, besteak beste, Edu Murua-



Edu Muruamendiarek "Sutargi" lana eskainiko du urriaren 19an.

mendiarek bergararren eta Iruñeko Orfeoien emanaldiak. Muruamendiarek Aukeran bere taldearen *Sutargi* azken koreografia eskainiko du. Dantza ikuskitun hori urriaren 19an izango da, Udal Pilotalekuan, 22:00etan, eta San Joxepe elkarteak antolatu du bere hamabostaldi kulturalaren barruan. Iruñeko Orfeoia

urriaren 27an izango da herrian, San Pedro parrokian, iluntzeko 20:00-etan, eta doan.

AZAROAN ETA ABENDUAN

Azaroan beste ekitaldi sorta bat jasotzen du Udazken Kulturalako egitarauak. Besteak beste, La fabrica de teatro imaginario taldearen *Zortzi olivetti poetiko* an-

tzkeri lana, azaroaren 2an; Arkaitz Mendozaren piano kontzertua, azaroaren 11n, eta Jardun euskara elkarteak antolatutako bertso jaialdia, azaroaren 23an. Bertso jaialdi horretan Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Joxe Agirre, Jesus Mari Irazu eta Mañukorta bertsolariek hartuko dute parte, Zabalo-tegiko aretoan, 22:30ean.

Abendua harpa eta flauta kontzertuarekin hasiko da. Abenduaren 1ean, Aina Moreno eta Roberto Casadok pleno aretoan, 19:30ean, eskainiko duten kontzertuarekin. Horren ondotik, honako ekitaldi hauek izango dira beste batzuren artean: Lausardi Koru Sinfonikoaren emanaldia, abenduaren 2an, Saxteiz saxofoi laukotearen emanaldia 8an, edota Bederen I taldearen *Laurel eta Hardy*, zerura bidean antzerki lana, 14an.

Bedelkarrek musikaz alaituko ditu herriko kaleak

Bedelkarrek, Bergarako dendarien elkarteak, hainbat musika ekitaldi antolatu ditu urrirako eta azarorako.

Lehenengoa urriaren 19an izango da, bigarrena urriaren 26an eta hirugarrena azaroaren 2an, hirurak

egubakoitzetan. Musika jartzeaz Musika Eskolako trikitilariak, Musika Eskolako Banda Gaztea eta Jarduneko Euskara Elkarte trikitilariak arduratuko dira: hiru taldeek herriko kaleak alaituko dituzte 18:30ean hasi eta 20:30 arte.

Bedelkarrek kaleko musika ekitaldi horiekin, kaleak alaitzeaz gain, antolatu berri duen zozketaren berri eman nahi du. Urriaren hasi eta Gabonak arte, hainbat txartel jarriko ditu Bedelkarrek herriko dendetan. Ohi bezala, dendarien elkarte

txartel horietan galdera bat agertuko da. Galdera erantzun eta dendetan egongo diren kutxetan utzi beharko dira txartelak. Erantzuna zuzena izan beharko da, eta sari gisa, herriko dendetan gastatzeko bonoak emango dituzte.



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09



Hogei urte dira hogei urte genituela

Datorren zapatuan, urriak 6, 1961ean jaiotako bergarrek kinto afaria egingo dute Tartufo jatetxean. Aurten 40 urte betetzen dituztenez, ospakizun berezia prestatu dute datorren asterako, eta gonbidapena egiten diete kinto guztiei afarira joateko. Berrogei urte: zerbaki biribila, baina ospe txarrekoa. Gaztetako sasoiari eusteko asmoz jaialdi berezia egingo dute, eta batzordeak sorpresa bat baino gehiago iragarri du. Ziur primeran pasatuko dutela orain dela urte batzuetako kontuak gogoratzen.

Goiko argazkia 1978koa da, Institutuko Santo Tomas jaietan aterata zuten. BBBko hiru garren mailan ari zirela, argazkikoek *Les Petites Chanteurs de la Croix de Bois* izeneko abesbatza osatu zuten. Antza denez, entzuleen eta kritikoen artean izugarriko arrakasta lortu zuten euren "interpretazio polifonikoekin". Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Aurrean: Joseba Gabilondo, Ketxus Manzano, Iñigo Korkostegi, Jose Ignacio Aranes, Valen Moñux, Patxi Palomares, Ja-

bier Otazua, Francisco Jabier Roige, Mikel Agirregabiria eta Juanjo López.

Bigarren ilaran: Marisa Karasatorre, Ane Miren Lizarralde, Enkarni Martínez, Idoia Urrutia, Agurtzane Arriola, Montse Otazua, Ruth Bolinaga, Susana Sampietro, Ana Larrañaga, Argiñe Sagastume eta Joseba Leturia.

Atzean: Juanjo Serrano irakaslea, Biteiri eta Jose Ramon Irigoien.

Argazkia: Kintadako batzorde antolatzailea



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

**LONBIDE
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta 5
BERGARA


☎ 943 76 10 57



**GUREN
INTURAK**

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



KABINETE MEDIKOA

Gizentasuna
Zelulitisa
Mesoterapia
Zimurren betetzea
Ezpainen betetzea
Barizeak
Depilazio laser medikoa

KABINETE ESTETIKOA

Zimurrendako kolageno tratamenduak
Orbanen kontrako tratamenduak
Akne tratamenduak
Gorputz tratamendu pertsonalizatuak


Ametz

EDERTZE ARETOA

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■

udazkena & negua

BONAVENTURE • DOCKERS • MON BELL AIR • ZONE • PEPE • LEVI'S • DANEVA



Barrenkalea, 35.
943 76 03 98
Irala, 5.
943 76 37 41

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.

